


Zientzia Astea 2018

Euskadiko gazte gehienek zientzia eta teknologiarekiko interes handia edo dezentea dutela diote (% 58)

Azaroaren 7tik 11ra Zientziaren, Teknologiarekiko eta Berrikuntzaren XVIII. astea ([Zientzia Astea](#)) ospatuko dela-eta, Euskadiko gazteek zientzia eta teknologiarikiko buruzko interes handiagoa da gazteen artean 30 urte eta gehiago dituen biztanlerian baino (azken horien artean interes handia edo dezente erakusten dutenak % 48 baitira).

Euskadiko 18 eta 29 urte bitarteko % 58k diote asko edo dezente interesatzen zaiela zientzia eta teknologia. Gai horiei buruzko interesa handiagoa da gazteen artean 30 urte eta gehiago dituen biztanlerian baino (azken horien artean interes handia edo dezente erakusten dutenak % 48 baitira).


Zientzia eta teknologiarekiko interesa 18 eta 29 urte bitartekoaren eta 30 urtetik gorakoaren artean (%)



Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea (Gazteen argazkiak 21)

Ikerlari lanbideari dagokionez, gazte gehienek uste dute norberarentzat aberasgarria dela (% 60) eta oso erakargarria dela gazteentzat (% 54), baina gizartean errekonozimendu eskasa duela (% 54). Eta gehiengo osatzen ez badute, gehiago dira diruz gaizki ordaindua dagoela uste duten gazteak (% 45) ongi ordaindua dagoela uste dutenak baino (%23).

Ikerlari lanbideari buruzko iritziak 18 eta 29 urte bitartekoen artean (%)



Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea (Gazteen argazkiak 21)

Aipatutako datuak [Gazteen argazkiak 21](#) izeneko ikerketan kontsulta daitezke, zientziaren eta teknologiaren gizarte pertzepzioari buruzko atalean hain zuzen ere. Eusko Jaurlaritzako Lehendakariaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak urtero prestatzen ditu *Gazteen argazkiak* izeneko ikerketak Gazteen Euskal Behatokiarentzat.